

azpeitianzer?

udal aldizkaria

144. zenbakia
2012ko urtarrila



DONOSTIA



AZKOITIA - AZPEITIA - ZESTOA



Donostiarako
konexio gehiago

*Azpeititik Donostiarako autobus
zerbitzua nabarmen gehitu da*

ale honetan zer?

3 Udal zerbitzua eta erabakiak

4 Autobus zerbitzua

5 Azpeitia- Zestoa

6 Denon artean

8 Erreportajea

12 Motxean

14 Ingurugiro jardunaldiak

15 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala

Egilea: Prentsa bulegoa

Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000

L.G: SS - I 148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulatorioa	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Udal zerbitzuak

Udal Kirol Patronatua



Azpeitiarrek gaur egun aitzakia gutxi dute kirola praktikatzeko. Izan ere, Udaleko Kirol Patronatuak pasealekuak, bidegorriak edota kirolarentzat azpiegitura egokiak eskaintzen ditu horretarako. Kirola praktikatzen duenak osasunean irabazten du eta horren jakitun dira Patronatuko 5.945 abonatuak. Taldean zein norbanakoan behar desberdinak dituzte herritarrek eta behar hauek asetzeko, eskaintza ugari ditu Kirol sailak; kiroldegia, igerilekuak, pilotalekuak, paddle eta tenis pistak...Zerbitzu guztiak kiroldegitik eta igerilekutik kudeatzen dira eta bertan aurkituko duzu beharrezko informazio guztia. **Animatu eta zatoz kirola egitera!**

IGERILEKU ESTALIA

- * Astelehenetan: Goizez ITXITA / Arratsalde: 14:30 - 22:00
- * Astegunetan: 07:00 - 22:00
- * Larunbatetan: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00
- * Igande eta Jaiegunetan: 09:00 - 13:00
- * Tel.: 943 81 41 21

KIROLDEGIA / KIROL GUNE BERRIA

- * Astelehenetik Ostiralera: 10:00 - 13:00 / 15:00 - 22:00
- * Larunbatetan: 10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00
- * Igande eta Jaiegunetan: KIROLDEGIA ITXITA
- * Igande eta Jaiegunetan: Tenis eta Paddle pistak
- kiroldegiko tabernatik bideratuko dira: 10:00 - 19:00
- * Tel.: 943 81 30 69

Udal erabakiak

Urtarrilaren 3ko Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak ondorengo hauek izan ziren:

- 1.- 2011ko abenduaren 13an egindako bilkuraren akta onartzea.
- 2.- Arau Osagarrien Berrazterketan Izarra 5. H.I.E. eremurako Plan Partzialaren bigarren aldaketa: behin betiko onarpena.
- 3.- Burnibidearen Euskal Museoa fundazioaren estatutuen aldaketaren berri ematea.
- 4.- Azpeitia Lantzen S.A.ko Batzar Orokor oduan osatuta; Azpeitia Lantzen S.A.ko auditori lanen esleipena.
- 5.- Euskal presoen eskubideen aldeko mozioa.
- 6.- Galdera eta erreguak.



Eneko Etxeberria, Leire Etxeberria eta Pello Bastarrika, Azpeitiko, Zestoako eta Azkoitiko alkateak.

Donostiarako autobus zerbitzuak gehitu dira

Azpeitiko Udalak herritarrek garraio publikoa erabiltzera animatu nahi ditu

Urteetako eskaerak erantzuna izan du eta urtarilaren 16tik aurrera, Donostiarako autobus zerbitzu gehiagoz gozatzeko aukera dute azpeitiarrek. Zerbitzuaren hobekuntza Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako Udalek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako bileren emaitza zuzena izan da eta hiru alkateak oso gustura agertu dira autobus zerbitzuaren gehikuntzarekin.

Azpeitiarrek eta orokorrean, bailarako bizilagunek azken urteetan izan ez duten gutxieneko zerbitzua izatea lortu dela uste dute arduradunek: "Albiste oso ona dugu, izan ere, azken urteetan bailarako herritarrek ez dute beharrezko zerbitzua jaso. Bilera asko egin behar izan dugu hau lortzeko, baina dagoen behar nabarmenari erantzuteko balio izan digu", agertu zuen Azkoitiko alkate den Pello Bastarrikak.



Modu honetan, guztira 20 zerbitzu gehiago eskuratu dira bailarako;

• **Astegunetan:**

20 joan etorri daude, lehen baino 8 gehiago.

• **Udaran:**

15 joan etorri, lehen baino 4 gehiago.

• **Larunbatetan:**

10 joan etorri, lehen baino 4 gehiago.

• **Igande eta jai egunetan:**

6 joan etorri, lehen baino 4 gehiago.

Era berean, kentzekoak ziren Azkoitia-Tolosa linea mantentzea lortu da. Eneko Etxeberria alkateak zerbitzua handitzea aurrerapauso handia den arren, nahikoa ez dela eta elkarlanean jarraitzea ezinbestekotzat jo zuen. "Elkarlana gogorra eta zaila da baina lanak fruituak ematen ditu. Denen interesak koordinatuta, helburuak lortzen dira. Gehiago nahi dugu eta etengabe lanean ari gara, alde batetik, Errezil eta Beizama zerbitzuak eta bestalde Zumarragako ospitalera eta asteburuetan Zumaiarako zerbitzuak hobetzeko proiektuetan. Kontuan izan behar da Lurralde-bus zerbitzua hobetzeko esleipena gauzatzeko urte bete pasatuko dela".

Zerbitzua hobetuta, Azpeitiko Udalak garraio publikoa erabiltzera animatu nahi ditu herritarrek. Orduetegi berria udal-etxeko sarreran edota www.azpeitia.net webgunean dago eskuragai.



Eneko Etxeberria eta Leire Etxeberria alkateak.

Zaharren egoitzak hobetzeko batu dira Azpeitiko eta Zestoako Udalak

Inbertsioak egiterako orduan hutsune nabarmenak dituztela diote arduradunek

azpeitiko San Martin eta Zestoako San Juan zaharren egoitzentzat laguntzak eskatzeko indarrak batu dituzte bi herrietako udaletxeek. Arduradunek agertu dutenez, bi egoitzak irabazi asmorik gabeko bi fundaziok kudeatzen dituzte baina azken urteetan hutsune nabarmenak aurkitu dituzte inbertsioei aurre egiterako orduan: “Zerbitzuak eskaintzeko bideratu beharreko zati garrantzitsu bat finantza erakundeei itzuli beharreko amortizazio eta interesetan joaten zaigu. Beraz, inbertsioen finantzaketa publikoa eskatzen dugu”, azaldu dute.

Bi egoitzetako fundazioek bide luzea eginga dute, Azpeitiko 1.508 urtean sortu baitzen eta Zestoako, aldiz, 1.919an. Gaur egun, berriz, bi erakundeen artean

122 egoitzako plaza homologatu, 16 Unitate Psikogeriatriko, 15 Eguneko Zentroko plaza eta 8 etxe babestu eskaintzen dituzte. Guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuak, Azpeitiko 7 plaza izan ezik.

“Adinduen zerbitzurako egiten dugu lan eta beraiek dira gure lanaren helburu. Baina azken urteetan egin behar izan ditugun obra eta egokitze lanek erabat zorpetu gaituzte.

“Bi egoitzetako fundazioek bide luzea eginga dute, Azpeitiko 1.508 urtean sortu baitzen eta Zestoako, aldiz, 1.919an”

Gure diru sarrera bakarrak Aldundiarekin hitzartutako plazen trukean jasotzen ditugunak dira. Plazako jasotakoa zerbitzuak eskaintzeko bideratuak izan beharko luke, eta alde horretatik nahikoa direla deritzogu, ez dugu tarifa hauen gehikuntzarik eskatzen”, gaineratu dute.

Horregatik, eskaintzen dituzten plaza guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuak izatea eskatzen dute: “Behar sozialei erantzuteko sortuak izan ginen, eta behar horiei erantzuten jarraitzea da gure helburua, ahalik eta modu garden, zuzen eta duinean”, amaitu dute. Horretaz gain, bi egoitzak Udalak bultzatuta elkarlanean arituko dira egunerokoan bai kudeaketan eta bai erabaki estrategikoak elkarrekin hartuaz.



Udala 450 herritar baino gehiagorekin bildu da aurrekontuak denon artean osatzeko

Dagoeneko 200 proposamen eta iradokizun baino gehiago jaso dira

aurrekontuak azpeitiarrekin batera eratzeko ekimena aurrera darrai eta dagoeneko, Azpeitiko Udala 450 herritar ingururekin bildu da hauek dituzten behar eta iradokizunak jaso, eta 2012 aurrekontuak osatzeko. Denon Artean izeneko kanpainaren aurkezpen orokorra egin ondoren, herriko auzo eta gunetako bizilagunekin egin dira batzarrek, besteak beste, Xanjuandegi, Aratz-Erreka, Garmendi edota Loiola Bide eta dagoeneko 200 proposamen eta iradokizun baino gehiago jaso dira.

Hurrengo egun eta asteetan Udal ordezkariak auzoekin biltzen jarraituko dute eta hil amaieran, eragile desberdinen txanda izango da; kirola, emakumeak, gizarte zerbitzuak, euskara...

“Auzo eta taldeen proposamenak jasotakoan, zeintzuk txertatu daitezkeen aurrekontuetan aztertuko du Udalak ”

Auzo eta taldeen proposamenak jasotakoan, zeintzuk txertatu daitezkeen aurrekontuetan aztertuko du Udalak eta azken erabakia, kontseilu ireki batean agertuko du. Hala ere, www.azpeitia.net webgunean informazio eguneratua eta osatua aurki daiteke.

Udalaren eta herritarren arteko elkarlana estrategikotzat jotzen du Udal Gobernuak eta horretarako, hainbat tresna eta bide jarriko ditu azpeitiarren eskura. Honela, aurrekontuak osatzeko bilerekin gain, herritarren parte-hartzea arautuko duen ordenantza amaitzen ari da Udala eta las-ter aurkeztuko du jendaurrean.



Urrestilla

Abenduak 15

Eskaerak:

Garraio publikoa gehitzea, pilotaleku-rako sarrera hobetzea, auzoko eremua zehaztea, trafikoa erregulatzea, haurren parkea berritzea internet sarea hobetzea eta Azpeititik Urrestilla-rako bidegorria egitea.



Aratz-Erreka

Abenduak 26

Eskaerak:

Telefono mugikorreko estaldura izatea, haur parkea izatea, argitzapen gehiago jartzea, kaleguneko lur zati bat eraikigarri izatea eta errepideak konpontzea.



Soreasu-Madalena

Abenduak 27

Eskaerak:

Saneamendua hobetzea, espaloi gehiago egitea, TDT seinalea hobetzea Soreasuko parkingari irtenbidea ematea, auzoan inbertitzea eta uholdeen aurkako neurriak hartzea.



Xanjuandegi

Abenduak 28

Eskaerak:

Aparkalekuen ordenazio berria egitea, komun publikoa jartzea, lurrazpiko garajeez dituzten ur arazoak konpontzea eta haur parke estali bat izatea.



Garmendi

Urtarrilak 3

Eskaerak:

Auzoan inbertsio gehiago egitea, azpiegiturak hobetzea, Pablo VI-tik Garate Anaiarako igogailua egitea, Anexo eta errepide arteko espaloia eta lur zatia konpondu eta Garmendi auzoko autoen bidegurutze arriskutsua berritzea.



Alde Zaharra

Urtarrilak 4

Eskaerak:

Zaborrak kalean ez uztea, larunbat gauetako usainak eta zaratak ekiditea, Soreasuko aparkalekuaren sistema aldatzea, Berdura Plaza birmoldatzea, etxe hutsak eraberritu eta oinezkoen aldeko apustua egitea.



Loiola Bide

Urtarrilak 10

Eskaerak:

Garajeetako arazoak konpontzea, edukiontzia tokiz aldatzea, amaitu gabeko etxebizitzetara irtenbidea ematea, larunbat gauetan sortutako zikinkeria garbitzea, hondakin organikoen edukiontzia gehiago jartzea eta lurrazpiko pasabidean ispilua jartzea.



Lasao

Urtarrilak 11

Eskaerak:

Auzoa berpiztea, auzo alkatea irudia sortzea, lokala izatea, auzorako sarrera hobetzea, errepideko autoen abiadura moteltzea, internet sarea hobetzea eta autobus zerbitzua gehitzea.

2022 sansebastianak



Atabal eta danborrak prest

Aurtengo San Sebastian jaietako Helduen Danborrada betiko ordutegira itzuliko da

Gutxi falta da festa lehertzeko. Danbor, barrika, atabal eta jantziak prest daude erabiliak izateko. 55 urtez egin bezala, San Sebastian jaiek Azpeitiko protagonista nagusiak izango dira urtarri-laren 19an eta 20an eta herriko kaleak musikaz, jendez, kolorez eta doinuaz beteko dira bi egunetan zehar.

Azpeitiko Udala irailean hasi zen 2012ko Danborrada prestatzen herriko talde eta elkarteekin batera, eta festarentzat hobeago diren erabakiak hartu dira hilabete hauetan. Besteak beste, Helduen Danborrada betiko ordura igarotzea, Damasotik ez pasatzea eta Bandera jaistearen Danborrada Xanjuandegitik hastea izango dira berrikuntza nagusienak: "Aldaketa hauekin Danborrada txukuna izatea espero dugu. Taldeekin egin diren bilera guztiak oso ondo joan dira, Udaletik oso balorazio positiboa egiten dugu, jarrera baikorra eta egokia izan baitute elkarteek", agertu du Festa batzordeburu den Mikel Ibarzabalek.



"Itziar Oiarzabal eta Maria Jesus Garmendiari omenaldia eskainiko zaie urtarri-laren 20an"

Modu honetan, aurtengo sansebastianetan izango diren berrikuntza eta bitxiak jarraian dituzu:

• **ORDUTEGIA.** Helduen Danborrada 22:15ean abiatuko da Goiko kaletik. Iaz ordubetez atzeratu zen hasiera eta esperientzia ez zenez gustatu, aurtan betiko ordutegira itzultzea erabaki da.

• **DAMASO KENDU.** Guztira 27 talde izanik parte hartuko dutenak, denbora irabazi beharra ikusten zen plazara orduan iristeko eta horregatik, Damasoko itzulia kentzea erabaki da: "Damasoko itzuli hau ez zen egokia ikusten, eta orain kenduta, denbora irabazteko aukera ematen digu", argitu du Festa batzordeburuak.

• **TALDE BERRIA.** Iaz irten behar zuen arren, azken orduko arazoek atzera bota zuten bere partaidetza, baina aurtan, Oinatzbideko Gastadorea taldeak Helduen Danborradan parte hartuko du.



EGITARAUA



• **ALDAKETA ORDENEAN.** Oinatzbideko Gastadoreak taldea berria izanik, desfilearen atzeko lekuetan joan beharko luke Danborradan baina estreinaldia duenez, lehen postuan joango dira, gastadoreen atzetik. Horregatik, lehen postuan joan behar zuen Amnistia taldea 22. lekuan joango da. Hurrengo urtetik aurrera, talde bakoitzak dagokion posizio berreskuratuko du.

• **PANKARTA ETA ARGAZKIA.** Taldeen onarpena izan duenez, Egin dezagun bidea! Taldearen pankarta jarriko da kioskoan eta gauerdia iritsi aurretik, elkarteetako ordezkariekin argazkia aterako da.

• **BANDERA JAISTEA.** Bandera jaistearen ekitaldia Xanjuandegin hasiko da aurten 22:45etik aurrera. Bertan bizi diren herritarrek eskaera ugari egin dituzte Danborrada bertatik hasteko, gainera taldeek ondo ikusi dute eta Udalak ontzat hartu du. Sei izango dira parte hartuko duten elkarteak; Loiolabide Zahar, Oinatzbideko Gastadoreak, Zulozabal, Loiolatxo, Itsasi eta Harkaitza.

• **OMENALDIA.** Haurren Danborradaren baitan, omenaldi berezia eskainiko zaie Itziar Oiarzabal eta Maria Jesus Garmendiari. "20 urte baino gehiago daramatzate Erregeen Kabalgatan isilpeko boluntario lana egiten eta merezitako omenaldia egingo zaie udaletxean 12:30ean", azaldu du Ibarzabalek.

• **KARROZA IKASBERRIK.** Aurten Ikasberri ikastolari egokitzen zaio Haurren Danborradako karroza eraman eta gastadoreak izatea, Festa batzordeburuak aurreratu duenez, "karroza oso polita gelditu da".

• **PIANORAKO MOLDAKETAK.** Jose Luis Frantzesenak San Sebastian jailetako 12 doinu pianorako moldatu eta partiturak egin ditu: "Pieza errazak izango dira jotzeko, gainera akordeak sartu ditut eta trikitilari eta gitarristek ere jo ahal izango dituzte", adierazi du musikariak. Partiturak lortu nahi dituztenek Juan de Antxieta musika eskolara gerturatu eta bertan eskatu beharko dituzte.

• **CD-ak SALGAI.** Udalak argitaratuta sansebastianetako eta inauterietako diskoak salgai daude egunotan Sanagustin kulturgunean 10 euroren truke.

19, OSTEGUNA

SAN SEBASTIAN BEZPERA

22:15ean Olazko Andre Mariaren Plazatik irtenda, herriko kaleetan zehar HELDUEN DANBORRADA.

24:00etan Talde guztiak elkartuta Plaza Nagusian danborradako doinuak joko dituzte.

20, OSTIRALA,

SAN SEBASTIAN EGUNA

09:00tan Herriko kaleetan zehar Txistularien eta Musika Eskolaren GOIZ-ERESIA.

09:30ean ARDOZALEAK eta GURE AMETSA Taldeek, Udal Musika Bandarekin batera eta Musika Eskolako Txilibatuak kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar.

10:15ean Herriko agintariak KORPORAZIOAN Eliza Nagusira joango dira.

10:30ean Herriko Kaleetan zehar PROZESIOA.

10:45ean San Sebastian Eliza Nagusian MEZA NAGUSIA OLAZKO AMARI ZUZENDUA Parrokiko eta Barrene-txeako abesbatzen laguntzarekin. Organo jotzailea J.L.Frantsesena

12:00etan SOKAMUTURRA Plaza Nagusian

12:30ean Aranetik eta Hartzubitik irtenda HAURREN DANBORRADA karroza ikusgarriarekin. Aurtengo karrozaren gaia:

"AZPEITIA, MUSIKA ETA KIROLEAN ARDATZ"

* AKILINO AMEZUA organo egilea, hil zela 100 urte betetzen dira (1847-1912)

* JOXE ARANBURU "KEIXETA" aizkolaria, hil zela 50 urte betetzen dira (1881-1962)

Karrozaren egilea: Rebeca Larrañaga Udabe

Aholkularitza: IMANOL ELIAS

16:30ean SOKAMUTURRA

17:00etan IZARRAITZ PILOTALE-KUAN pilota partida bikainak.

1. partida:

TAINTA - ARGOTE
MENDIZABAL III - L.GALARZA

2. partida:

XALA - LASKURAIN
ARRETXE II - BEGINO

22:45ean Irteera: Sanjuandegi auzotik herriko kaleetara abiatuko dira, Olazko Andre Mariaren Plazatik, Enparan Kalea, Erdikale, Elizkale, Done Jakue kalea eta bukaera Plaza Nagusian izango da.

24:00etan Bandera jaistea.

21, LARUNBATA

13:00etatik 15:00etara HAUR PARKEAK Plaza Nagusian

16:00etatik 20:00etara HAUR PARKEAK Plaza Nagusian

22, IGANDEA

12:00etan Sokako zezen txikia Erdi-kaleetik Plaza Nagusira. ZEZEN TXIKIAK eta PONIAK Plaza Nagusian

16:30ean SOKAMUTURRA



2022 sansebastianak

Taldeek Plaza Nagusian izango duten kokapena:





“Elkarlanari esker Azpeitiko festak gero eta hobeak izango dira”

Mikel Ibarzabal
Festa batzordeburua.

Sansebastianak herritarren parte-hartze gehien duten festak dira. Horregatik, partaidetza eta elkarlana nabarmentzen ditu Mikel Ibarzabal Festa batzordeburuak Azpeitiak dituen festetan krisia ez nabaritu eta ekitaldi eta aukeraz betetzeko.

Krisi garaian nola antolatzen dira festak eta nola eragiten dio egitarauari?

Urtero bezala hilabeteak igarotzen ditugu festak antolatzeko. Aurtengo sansebastianak, adibidez, irailean hasi ziren prestatzen herriko talde eta elkarteekin batera. Egitaraua prestatzea ez da zaila, azkenean momentuko egoerara egokitzea baita. Diru gutxiago dugu gastatzeko, baina egoera ekonomiko zailean bada ere festa osatuak prestatu ditugula uste dugu. Gainera, jai giroa asteburura luzatzeko, ekitaldiak antolatu dira larunbat eta iganderako.

Zein aurrekonturekin prestatu dituzue sansebastianak?

Aurten aurrekontua jaitsi dugu baina festa berdina edo hobeagoa izango da. Hasieratik esan genuen auzolana eta elkarlana ardatzizango zirela gure lanaren oinarri eta taldeen laguntzarekin, gure

ustetan, baliabide gutxiagoekin baina herritarren dohaineko laguntzarekin festa hobeagoak izatea lortuko dugu.

Zer nabarmenduko zenuke festa hauetatik?

Herritarren partaidetza, dudarik gabe. Helduen Danborradan 1.300 danborjole inguruk hartzen dute parte aktiboki eta umeetan, berriz, 600 bat. Azpeitian ez dago horrelako beste festarik, parte-hartzeari dagokionez behintzat. Ikaragarri izaten da hainbeste danborjole ikustea eta gainera, kaleak jendez beteta izaten dira, gustukoak diren seinale.

Nolakoa da Udala eta talde eta elkarten arteko harremana?

Azpeitiko Udala eta Danborradako talde eta elkarten arteko erlazio oso ona da. Gu, Udal bezala, oso gustura gaude taldeekin egin diren bilera guztiak

nola joan diren ikusita. Komunikazioa zuzena da eta denek erakusten duten jarrera oso baikorra eta baliagarria izaten da. Horrela jarraitzeko esfortzua egiten jarraituko dugu.

Festa ugariko herria dugu Azpeitia, egoera ekonomikoak zer eragin izango du?

Aurrez esan bezala, Udal taldearen helburu nagusia hainbat herritarren eta eragile partaidetza sustatzea da eta hurrengo festetan ere berdina egiten jarraituko dugu. Herritarrak bidelagun baditugu ez da arazorik izango, eta festak hobeak izango dira gure herrian. Horren dudarik ez dut. Errepikatu egiten dut, elkarlana eta auzolana ardatzak dira guretzat eta horren adierazle, Baigerakoekin eta gazteekin osatzen ari garen mahaia dugu. Mahai honek ekitaldi berri eta ugari antolatzeko aukera emango digu.

Jexux Zelaia, 2011ko kirolaria



2011 urtea amaitu aurretik, urteko balantzea egitea egokitu zen eta urteroko ohiturari jarraituz, kirol bakoitzeko nabarmenduak saritu zituen Udalak. Jexux Zelaia aukeratu zen 2011 urteko Azpeitiko Kirolaria. Zelaia 2011ean zehar lortu zituen emaitzen artean bi gailentzen dira, batetik, igoera bertikaleko 2011ko Euskal Kopan Helduen sailkapenean 1. sailkatua izan zen eta mendi lasterketetan, berriaz, helduen kategorian, Euskal Herriko txapelduna da. Abenduaren 17ko ekitaldian jaso zuen garaikurra irabazleak eta berekin batera, hautagai ziren gailentzeko hamabost kirolariek ere euren saria eskuratu zuten.

Amubieta eta Aldalur garaile



maialen Aldalur eta Amets Amubieta azpeitiarrek irabazi zuten San Tomas jaien baitan antolatutako XI. Dantza Solteko txapelketa. Modu honetan, bikote garaileak bigarren urtez jarraian lortu du lehen postua eta aurtengo txapela, Luis Alberdi 'Beltza'-ri eskaini zioten, 30 urte bete baititu Dantza Solte Eskolan irakasle bezala. Epaleen neska eta mutil dantzari onenaren saria ere, Aldalur eta Amubietak jaso zuten. Txapelketaren amaieran, Dantza Suelto Eskolako dantzari txikiek erakustaldia egin zuten eta Jon Iburguren eta Idoia Besada Helduen Euskal Herriko Dantza Txapelketa Nagusiko txapeldunek saioa eskaini zuten.

Urteurrena borobiltzeko, kontzertua



a benduaren 20ean Julian Barrenetxea Abesbatzak eta Udal Musika Bandak emaldia eskaini zuten Soreasu kulturegunean. Azpeitiko abesbatzak 25 urte bete zituen 2011 urtean eta data berezia ospatzeko, hamaika ekitaldi antolatu zituzten urte guztian zehar. Besteak beste, San Ignazio festetako txupinazoa jaurtitzeko aukera izan zuten uztailean, Udazkenean Abesbatzak egitasmoan parte-hartze aktiboa izan zuten eta kantu-poteoa ere antolatu zuten. Urtea amaitu eta urteurrena borobiltzeko, kontzertu hunkigarri eta berezia eskaini zieten Soreasura bertaratu ziren herritarrei eta Udal ordezkariari.

Sanagustineko sarrerak, interneten

garai eta teknologia berrietara moldatuz, Sanagustin kulturgunek antolatzen dituen eta sarrera behar duten ekitaldiarako txartelak on-line bidez erosteko aukera jarri dute. Honela, www.sanagustinkulturgunea.net webgunera sartuz gero, zein ekitaldi dauden, zeintzuk duten sarrera edota bakoitzaren prezioak ikus ahalko dute herritarrek. Bestalde, kulturguneko erabiltzaileek gunearen inguruko iritzi, kexa eta proposamen guztiak jasotzeko gune bat ere erabilgarri dute webgunean eta idatziz egin nahi duenak, kulturgunean ezarri duten xaxara bota besterik ez dute egin behar.

Hondakinen kudeaketa eraginkorra sustatzeko asmoz



Jardunaldian parte hartu nahi dutenek urtaririlaren 27rako eman beharko dute izena

Ingurugiro Etxea Fundazioak, Azpeitiko eta Azkoitiko Udalekin elkarlanean, hondakinen kudeaketa eraginkorra sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu. Administrazio publikoari eta enpresei zuzendutako jardunaldiak otsailaren 2an egingo dira Azkoitiko Elkargunea eraikinean eta parte hartu nahi dutenek urtaririlaren 27 baino lehen eman behar dute izena, Ingurugiro Etxea Fundaziora deituta, 943 15 17 13 edota ingurugiroetxeafundazioa@azpeitia.net helbidera idatzita.



Orkatz Goenaga
Ingurumen teknikaria

Zer garrantzia du hondakinen kudeaketa eraginkorrak?

Hondakinak tokiko administrazio publikoak kudeatzen ditu, eta bere lanik mardulena zein baliabide handiak behar dituen da. Beti izan da erronka hondakinen kudeaketa iraunkorra egitea batez ere baliabideen erabilera eraginkorra egin zedin. Oraingo egoeran hau nabarmendu eta areagotu egiten da, ahalik eta baliabide gutxienekin zerbitzuen kalitatea mantentzea baita erronka. Aipatu hondakinen kudeaketa ez dela zabor ontzitik hartu eta tratamendu planta batera eramatea soilik, hondakinak ingurumen arazo bilakatu dira, eta eragin honen txikitzea ere kudeaketa eraginkor horretan sartzen da.

Eta Azpeitian zein da egoera?

Lapatx zabortegia izanik, herrietan bildutako hondakinak zabortegira eramanean eta bertan desagertzen direnaren uste faltsua dago. Hondakinen kudeaketaren barnean Lapatxera iritsitakoak dituen ingurumen eraginak (aire kalitatea, uren kalitatea, ibai ekosistemaren mantentzea, lurren egonkortasuna, zabortegiaren segurtasuna...) kudeatu behar dira, eta zabortegia itxi ostean ere beste 30 bat urtetan mantentze lan handiak egin beharko da. Lan guzti horretan baliabide ugari xahutzen da, eta horren kudeaketa eraginkorra egitea ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzu publikoa mantentzeko.

Estrategia eta aukera desberdinak aztertuta eta erakutsiko dira jardunaldietan. Zein nabarmenduko zenuke?

Aurkeztuko diren estrategiak eta aukeren artean bere erabilpena edo zein erakunde erabiltzeko modukoak diren izango da, izan ere, batzuek administrazio publikoak ezarri beharreko politikei edo teknikei begirakoak dira eta besteak enpresa pribatuak bere kostuak gutzitzeko edo negozio aukera berriak

irekitzeko modukoak baitira. Deigarri moduan aipatu Retorna ekimena, zeinak 20-30 urte atzera egitera bideratzen gaituen. Retorna ekimenak diona zera da, edozein produkturen ontziteria merkatuan jartzen duen enpresaren ardura izan behar du, eta honek, berriz bildu eta berrerabili edo birziklatzeko moduak ipini behar ditu. Honen inguruan, ekimenak, enpresek beharrezkoa duten azpiegitura eta teknologia diseinatu du, baita nola finantzatu ere enpresentzako negozio iturri izan dadin. Honela, enpresek ontziterian erabiltzen zituzten lehengaien kopurua nabarmen murriztea lortuko dute, eta ontziteria erabat berrerabilgarria edo birziklagarria ekoiztuko dute.

Norentzat dira jardunaldiak?

Jardunaldia profesionalentzat prestaturik dago, helburua, administrazio publikoko zein enpresa pribatuko teknikari, zuzendari, zein politikariek begira diseinatu da, baina edozein herritarrek jardunaldia etorri nahiko balu irekia dago, izena eman besterik ez du egin behar.

agenda

URTARRILA

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



18, asteazkena

SAN SEBASTIANAK 2012
Haurren entsegua
Lekua: Izarraitz pilotalekuan
Ordua: 16:00 – 17:00

SAN SEBASTIANAK 2012
Helduen entsegua
Lekua: Izarraitz pilotalekuan
Ordua: 21:00 – 22:00

ARGIA DOKUMENTALA
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 21:30

19, osteguna

**SAN SEBASTIAN BEZPERA
HELDUEN DANBORRADA**
• Irteera 22:15etan ohizko kaleetatik
• 24:00etan Talde guztiak bilduta, Plaza
nagusian danborradako abestiak joko
dituzte. Udal musika bandaren lagunt-
zarekin 00:30ean Txaranga taldeak ka-
leetan zehar

20, ostirala

SAN SEBASTIAN EGUNA
9:30 Herriko kaleetan zehar txistula-
riak eta musika bandare kalejira
Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeek,
Udal Musika Bandarekin batera,
kalejira herriko kaleetan zehar

10:30 Herriko kaleetan Prozezioa

10:45 Meza nagusia San Sebastian elizan

12:00 Sokamuturra, plaza nagusian
12:30 HAURREN DANBORRADA

Aranetik eta Artzubitik irtenda

16:30 Sokamuturra

17:00 Izarraitz Pilotalekuan, pilota par-
tiduak

24:00 Bandera jeistea Azpeitiko elkarte
ezberdinekin

21, larunbata

UMEENTZAT JOLASAK – haur parkea
eta ekintzak gaztetxoentzat

Lekua: Plaza Nagusian
Ordua: 13:00 – 15:00
16:00 – 20:00

22, igandea

SOKAMUTURRA
Ordua: 16:00 – 20:00

SOREASU ANTZOKIA
16:30: Haurren emanaldia
19:30: Helduen emanaldia

23, astelehena

SOREASU ANTZOKIA
21:30: Helduen emanaldia

26, osteguna

ZINE FORUMA
“ANOTHER YEAR”
Antolatzailea: TA3

SOREASU ANTZOKIAN
Ordua: 21:30

27, ostirala

AITZEALDENK!
DJ SAIOA
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 23:00

28, larunbata

ZINE KLUB-en TOPAKETA
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 10:00

LAGUN ONAK MB
Azpeiti – Aizarna – Azpeiti

SOREASU ANTZOKIA
19:30: Helduen emanaldia
22:00: Helduen emanaldia

29, igandea

SOREASU ANTZOKIA
16:30: Haurren emanaldia
19:30: Helduen emanaldia

KONTZERTUA

**MIKEL MARKEZ +
ERRAMUN MARTIKORENA**
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 18:00

30, astelehena

SOREASU ANTZOKIA
21:30: Helduen emanaldia



Urola Erdiko Mankomunitateak adierazi duenez, igandeetan ez da zaborrik jasoko Azpeitian

Beraz, herritarrei larunbatetan zaborrik ez botatzea gogoratu nahi zaie eta hondakinen sailkapena ondo egitearen garrantziaz ohartarazi nahi da.

botikaxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Urtarrilak 4, 10, 13, 23 eta 29.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Urtarrilak 1, 3, 7, 8, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 26
eta 28.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Urtarrilak 6, 9, 27 eta 30.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urtarrilak 11, 14, 15 eta 24.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Urtarrilak 2, 5, 12, 25 eta 31.

